

Emakumeak gailurrean

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Zerrendatu ezagutzen dituzun mendizalerik ospetsuenak. Ba al dago emakumezko mendizale horien artean? Zergatik ote da? Ondorengo ariketan mendizaletasunaren historiara pasako diren bi emakume aurkeztuko dizkizugu, garai batekoa bata eta gaur egungoa bestea.

1- Junko Tabei, aintzindaria.

Junko Tabei japoniarra 1975ean igo zen Everestera. Munduko gailurrik altuenera igo zen lehenengo emakumea izan zen. Irakurri haren biografia eta jarraian erabaki ondorengo esaldiak egia ala gezurra ote diren.

Junko Tabei: Everesteko gailurrera iritsi zen lehen emakumea

Junko Tabei 1975eko maiatzaren 16an igo zen Everestera, eta modu horretara, balentria hori lortu zuen lehen emakumea izan zen. Jendeak, ordea, gogoan izango du, ez soilik igo zituen mendiengatik, baita berdintasunaren alde emandako pausoengatik ere: ordura arte gizonek erabat hartua zuten esparrurako bidea ireki baitziren hurrengo belaunaldietako emakume alpinistek.

Junko Tabei 1939ko irailaren 22an jaio zen Miharu (Japonia) herrian, Fukushima-ko ez oso urrun. Zazpi anai-arreba ziren, bera bosgarrena. 10 urte zituenean Nashu sumendia igo zuen, eta orduan piztu zitzaion mendirako harra. Baina bere familiak ez zuen baliabiderik kirol horretan aurrera egin zezan laguntzeko, eta horregatik, batez ere ikasle-garaian izandako aukerak baliatu zituen mendian ibiltzeko. Ikasketek dagokienez, Tokion lizentziatu zen Ingeles Literaturan emakumeentzako unibertsitate batean. Unibertsitateko mendi-taldeko bazkide ere egin zen.



Garaiko gizarteari aurre egiten

Junko Tabeik ez zuen sekula ulertu bere garaiko gizasemeen jarrera. Japoniako gizarte tradizionalak etxeko zokoa nahi zituen emakumeak. Mendizaletasuna zela-eta, aurreiritzi matxista askori egin behar izan zion aurre. Elkarrizketa batean adierazi zuen gizon gehienek uste zutela emakumeak senarra bilatzeko egiten zirela mendi-taldeetako kide, eta gizonezko batek baino gehiagok uko egin ziola berarekin eskalatzeari. Jarrera horrekin aspertuta, 1969an, Ladies Climbing Club-a sortu zuen, emakumeentzat bakarrik zen Japoniako lehen mendi-taldea. Taldearen asmoa Himalaiarako emakume-espeditioa antolatzea zen.

Andre-talde indartsu eta irmoa zen, eta berehala lortu zuen asmo hori. Tabeik berak eta beste taldekide batek Annapurna III (7.555 m) igo zuten, taldea sortu eta urtebete eskasera. Aurrera egiteko eta beste helburu batzuk jartzeko animoa eman zien arrakastak, eta tontorrik gorenean jarri zuten helburua: Everest. Baina Japoniako gizarteak Himalaiako erraldoiak berak baino traba gehiago jarri zizkien: inork ez zuten espeditioa finantzatu nahi eta etengabe esaten zieten geratzeko etxean ume-zain.

Baina ez zuten etsi, eta azkenean, 1972an egunkari batek eta telebista japoniar batek pausoa eman zuten: espedizioa finantzatzea erabaki zuten. Hala ere, bazen beste arazo bat: espedizioa garestiagoa zen lortutako dirua baino. Beraz, espediziorako aukeratutako 15 emakumeek beharrezko guztia lortzeko moldatu behar izan zuten; besteak beste, autoen eserlekuak birziklatu zituzten eskularruak eta motxilak giteko, edo euren lo-zakuak ere egin zituzten.



Elur-jausi batek lurperatuak

Espedizioa 1975ean heldu zen Katmandura (Nepal). Emakumez osatutako espedizioa izatea zen euren asmoa, eta horregatik emakume xerpak hartu nahi izan zituzten, baina hauek uko egin eta, gizona sei gidari hartu behar izan zituzten derrigor.

Maiatzean hasi ziren espedizioaren hornitze-lanak, eta guztia ondo samar zihoan. Baina gau batean, 6.300 metroan lotan zeudela, elur-jausi batek espedizio osoa harrapatu zuen. Tabei 6 minutu egon zen lurpean, konortetik gabe, xerpa batek atera zuen arte.

Nahiz eta heriotza gertu ikusi, ez zuten amore eman. Everesteko tontorra ez zen helburu bakarra; gizon askoren aurreiritziak ere gainditu behar zirenez, ez zegoen beste biderik: aurrera egin behar zen. Baina Tabeik bere beldurrak ere gainditu egin behar izan zituen.

Izan ere, inork ez zion azaldu gailurretik 100 metro eskasera mendi-ertz bat zegoela, aizto-ahoa bezain estua zena, alde banatan amildegia zuena. Mendi-ertz horretan bi sentimendu etorri zitzaizkion Tabei: haserrea batetik, inork aipatu ez ziolako oztopo hori, eta bestetik, oztopoak berak sortutako beldur ikaragarria. Baina bi sentimenduei egin zien aurre, eta elur-jausiak lurperatu eta 12 egun eskasera Everestera heldu zen, Ang Tshering xerparekin batera. Tabeik aitortu zuen tontorrera heltzean lasaitua hartu zuela poza baino gehiago. 1975eko maiatzaren 16a zen.

Munduko zazpi gailurrak

Tabeik mendizaletasunaren grinari eutsi, eta Everesten ondoren beste gailur batzuk egin zituen. Hala, munduko zazpi gailurrak egin zituen lehen emakumea izan zen. Mendigoizaleen artean ospe handia du munduko zazpi gailurrik garaienetara iristeak (kontinente bakoitzeko bana, gehi Ipar Amerikako eta Hego Amerikako mendirik altuenak). 1992an, Jayara, Ozeaniako tontorrik altuenera, iritsita egin zuen balentria.



Mendi-tontorrak zapaltzeaz gain, mendia garbi mantentzeko ahaleginak ere egin zituen. Junko Tabei eskalatzailleek mendi-goietan utzitako zaborra jasotzeko espedizioak antolatzen aritu zen, eta mendi-bideak garbitzen ere bai. Era batera edo bestera, munduko 70 herrialde baino gehiagotan aritu zen eskalatzeko.

2016an hil zen, 77 urterekin, minbiziak jota. Mendizale gisara izango da gogoratua, baina baita gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatu zuelako ere.

	EGIA	GEZURRA
Junko Tabei ezaguna da munduko mendirik altuenera igotzeagatik, baina baita emakumeei mendigoizaletasunaren bidea irekitzeagatik.		
Oso txikitan, 10 urterekin, hasi zen mendira igotzen, bere familiak behar zituen baliabide guztiak erraztu zizkiolako.		
Gizarte tradizional batean jaio zenez, garai horretako emakumeak bezala, senarra bilatzeko sartu zen lehen aldiz mendi talde batean.		
Gizarte matxistaren aurreiritziei aurre egiteko, emakumeentzako lehenengo mendizale taldea sortu zuen, eta taldekide batekin Himalaiako lehenengo tontorrera igo zen.		
Hasieran oztopo asko izan zituzten, baina azkenean egunkari batek eta telebista batek lagundu zieten, eta erraz topatu zuten espediziorako finantzaketa.		
Gizonezko xerpa ere hartu behar izan zituzten emakumeek ez zutelako xerpa lanetan joan nahi emakumez bakarrik osatutako espedizio batean.		
Elur-jausi batek Tabei eta xerpa bat harrapatu zituen, baina ez zuten amore eman, gizonen aurreiritziak gainditu nahi zituztelako.		
Tontorretik oso gertu zegoela espero ez zuen oztopo bat aurkitu zuen, mendi-ertz zorrotz bat, eta inork ez zuen horretaz ohartarazi.		
Everesten ondotik beste gailur batzuk ere igo zituen Tabeik: kontinente bakoitzeko altuena eta Ipar eta Hego Amerikako altuenak.		
Munduko 70 gailur altuenetara antolatu zituen garbiketa-espedizioak mendigoizaleek utzitako zaborra jasotzeko.		

2- Enbor beretik sortu diren besteak

Jarraian, Junko Tabeik irekitako bideari heldu eta munduko gailurrik altuenak igo dituen euskaldun bat aurkeztuko dizugu: Edurne Pasaban. Euskadi Irratian egin zioten elkarrizketa honetako 8 gai jaso ditugu, baina desordenatuta. Ordenatuko al dituzu elkarrizketan esan dituen ordenan?

Pertsona guztiok daukagu geure zortzimilakoa igotzeko erronka.	
Edurne mendizaleaz gain, liburuak Edurne pertsona gisa nolakoa den jasotzen du.	
Liburua idazteko laguntza izan du.	
Ospetsuarena baino gehiago pertsona baten bizitza kontatzen da: bere ahuleziak, ilusioak...	
Liburu irakurtzean, sumatu daiteke zein garrantzitsuak diren Edurneren gurasoak bere bizitzan.	
Himalaia lehenengo aldiz joan zenean maitemindu egin zen.	
Berrito itzuliko da Himalaiara, baina oraingoan oxigenorik gabe.	
Tolosako inauterietan batzuk Edurnez mozorrotuta ibili ziren.	

LAN TALDEAN: Ikaskideekin komentatu

Ezagutzen al duzu gizonezkoentzat erreserbatutako arlo batean nabarmendu den emakumeren bat?

Gaur egun gizonezkoek dauzkaten erraztasun berberak daukate emakumeek goi mailako kirolean aritzeko?

Zer iruditzen zaizu zortzimilakoak igotzeko grina hori? Ulegarria al da erronka bat lortzeagatik bizitza arriskuan jartzea?



ERANTZUNAK

	EGIA	GEZURRA
Junko Tabei ezaguna da munduko mendirik altuenera igotzeagatik, baina baita emakumei mendigoizaleatasunaren bidea irekitzeagatik.	X	
Oso txikitan, 10 urterekin, hasi zen mendira igotzen, bere familiak behar zituen baliabide guztiak erraztu zizkiolako.		X
Gizarte tradizional batean jaio zenez, garai horretako emakumeak bezala, senarra bilatzeko sartu zen lehen aldiz mendi talde batean.		X
Gizarte matxistaren aurreiritziei aurre egiteko, emakumeentzako lehenengo mendizale taldea sortu zuen, eta taldekide batekin Himalaiako lehenengo tontorrera igo zen.	X	
Hasieran oztopo asko izan zituzten, baina azkenean egunkari batek eta telebista batek lagundu zieten, eta erraz topatu zuten espediziorako finantzaketa.		X
Gizonezko xerpa ere hartu behar izan zituzten emakumeek ez zutelako xerpa lanetan joan nahi emakumeek bakarrik osatutako espedizio batean.	X	
Elur-jausi batek Tabei eta xerpa bat harrapatu zituen, baina ez zuten amore eman, gizonen aurreiritziak gainditu nahi zituztelako.		X
Tontorretik oso gertu zegoela espero ez zuen oztopo bat aurkitu zuen, mendi-ertz zorrotz bat, eta inork ez zuen horretaz ohartarazi.	X	
Everesten ondotik beste gailur batzuk ere igo zituen Tabeik: kontinente bakoitzeko altuena eta Ipar eta Hego Amerikako altuenak.	X	
Munduko 70 gailur altuenetara antolatu zituen garbiketa-espedizioak mendigoizaleek utzitako zaborra jasotzeko.		X

Ordena

Esaldiak

- 1 *Edurne mendizaleaz gain, liburuak Edurne pertsona gisa nolakoa den jasotzen du.*
- 2 *Himalaia lehenengo aldiz joan zenean maitemindu egin zen.*
- 3 *Liburua idazteko laguntza izan du.*
- 4 *Ospetsuarena baino gehiago pertsona baten bizitza kontatzen da: bere ahuleziak, ilusioak...*
- 5 *Pertsona guztiok daukagu geure zortzimilakoa igotzeko erronka.*
- 6 *Liburu irakurtzean, sumatu daiteke zein garrantzitsuak diren Edurneren gurasoak bere bizitzan.*
- 7 *Berrito itzuliko da Himalaiara, baina oraingoan oxigenorik gabe.*
- 8 *Tolosako inauterietan batzuk Edurnez mozorrotuta ibili ziren.*